

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## VITORIA-GASTEIZKO UDALA

## ALKATETZA, ERAKUNDE HARREMANEN ETA BERDINTASUNAREN SAILA

## Euskara zerbitzua

## 2024an arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen udal programaren deialdiaren ebazpena

Vitoria-Gasteizko Udalaren 2024ko dirulaguntzei buruzko ordenantza orokorreko 24.6. artikulua betez, Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko abenduaren 13an hartutako erabakiaren berri ematen zaie interesdunei. Bertan, 2024an merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntza-deialdia ebazten da. Hala dio ebazpen berriak:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko maiatzaren 3an egindako ohiko bilkuran, merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren oinarriak onartu ziren. Deialdiak 6.000,00 euroko aurrekontua izan du, 2024/0171.3351.48005 partidaren kargura. Deialdiaren oinarriak ALHAOn argitaratu ziren 2024ko ekainaren 5ean.

Onuradun izan zitezkeen 2023ko irailaren 1etik 2024ko abuztuaren 31ra bitartean diruz lagundutako lanak egin dituzten pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta Vitoria-Gasteizko udalerrian badute egoitza eta merkataritza-jarduera.

Eskabide hauek jaso dira, dagozkien fakturekin:

SALTOKIA	NAN / IFZ	KONTZEPTUA ETA FAKTURAK
Delabor Asesoría S.L.	B01133867	1.560,09 Materiales y web
		235,47 Bai Euskarari
Doitu Ofimatika S.L.	B01418698	217,56 Bai Euskarari
Elisabeth Colino García	72832390S	128,02 Bai Euskarari
Emaize Sexologia Zentroa S.L.	B01330208	199,65 Bai Euskarari
Gaizka Amorrortu Boveda	30651690G	128,02 Bai Euskarari
Galemys S.L.	B01313766	194,6 Bai Euskarari
Juan Manuel Mateo Pangua	16253157T	128,02 Bai Euskarari
Koxka Swetty S.L.	B01491935	2.753,24 Materiales y web
		2.435,45 Materiales
Leire Zulueta Fernández	16288288X	199,65 Bai Euskarari
Miren Maitane Melgar Magadan	35773150P	145,93 Bai Euskarari
Multilan AYG S.L.	B01386382	325,01 Bai Euskarari
Teklak Estudio de Comunicación y Audiencias S.C.	J01562222	145,93 Bai Euskarari
Txami Kutxi S.L.	B01564467	396,64 Bai Euskarari
Virgen Blanca S.C.	J01377936	683,65 Materiales
		378,73 Bai Euskarari

Egiaztatu da guztiek egunean dituztela zerga-eskakizunak dituzten administrazio publikoekiko betebeharrak, jarduera ekonomikoetan alta emanda daudela eta egunean daudela Gizarte Segurantzari eta Ogasunari egin beharreko ordainketetan.

Deialdiaren oinarrien arabera, udalak gastuaren ehuneko 50 diruz laguntzen du lehenengo bi ataletan, 600,00 euroko mugara arte, eta ehuneko 75 Bai Euskarari ziurtagiriaren kasuan, 450,00 euroko mugarekin.

Euskara Zerbitzuak, 2024ko azaroaren 14ko txostenean, dirulaguntza emateko proposamena egin zuen horretarako eraturako organoaren bidez.

Kontuan harturik, lehenik, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa; bigarrenik, horren araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; hirugarrenik, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko araudiaren 23. artikulua eta hurrengoek diotena; eta azkenik, dirulaguntzei buruzko udal ordenantzak ezarritakoa.

Kontuan harturik Vitoria-Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuaren misioa eta helburu estrategikoak.

Ikusirik 2023ko ekainaren 22eko Eskumenen Ordezkaritzari buruzko Alkatetzaren Dekretua, dirulaguntzen ordenantza orokorraren 8.1. artikulua, eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 127.1.g) artikulua, Alkatetzaren, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkariek honako proposamen hau egin dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki proposamena

Lehenengoa. Merkataritzaren arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzen deialdiaren ebazpena onartzea, eta, beraz, dirulaguntza hauek ematea, 2024/0171.3351.48005 aurrekontu-partidaren kontura:

ESTABLEZIMENDUA	NAN / IFZ	DIRULAGUNTZA
Delabor Asesoría S.L.	B01133867	776,60
Doitu Ofimatika S.L.	B01418698	163,17
Elisabeth Colino García	72832390S	96,02
Emaize Sexologia Zentroa S.L.	B01330208	149,74
Gaizka Amorrortu Boveda	30651690G	96,02
Galemys S.L.	B01313766	176,60
Juan Manuel Mateo Pangua	16253157T	96,02
Koxka Swetty S.L.	B01491935	600,00
Leire Zulueta Fernández	16288288X	749,74
Miren Maitane Melgar Magadan	35773150P	109,45
Mutilan AYG S.L.	B01386382	243,76
Teklak Estudio de Comunicación y Audiencias S.C.	J01562222	109,45
Txami Kutxi S.L.	B01564467	297,48
Virgen Blanca S.C.	J01377936	625,88

Bigarrena. Emandako dirulaguntzak osorik ordaintzea erabaki da, diruz lagundutako gastuaren justifikazioa aurkeztu baita, oinarrietan adierazitakoarekin bat.

Hirugarrena. Ebazpen honen berri ematea interesdunei, ALHAOn argitaratuta, eta jakinaraztea, halaber, erabaki honek agortu egiten duela administrazio bidea eta berorren kontra zuzenean aurkeztu ahal izango dela administrazioarekiko auzi-errekurtsioa Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte edo argitalpen egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, alde aurretik Aukerako Berraztertze Errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da,

araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Laugarrena. Dagokion informazioa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalean argitaratzea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 20. artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko urtarrilaren 9an

*Alkatetza, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saileko zinegotzi ordezkaria*  
*ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE*